



ESKUALDEA

ARABAKO ARTIUM FUNDAZIOA

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKORAKO KOMISARIOTZA
PROIEKTU BAT ETA HIRU EKOIZPEN PROIEKTU HAUTATZEKO
LEHIAKETA BATEN DEIALDIA**

ESKUALDEA KOMISARIOTZA

1.- AURKEZPENA

Komisariotza eta ekoizpen artistikoa biltzen dituen programa bikoitza da **Eskualdea**. **Arabako Lurralde Historikoan esku-hartzea** da bere helburu nagusia, arte garaikidearen eta lurraldearen arteko gurutzaketa guneak sustatzeko, landa inguruarekiko, naturarekiko eta gizarte-testuinguruarekiko elkarriketari arreta berezia eskainiz.

Artiumek 2018an antolatu zituen **Ekinean ibiltari** eta **Arte plastikoen erakusketa ibiltaria** programen jarraipena da **Eskualdea**, eta oraingo honetan deialdi bakarrean birformulatu da, alde batetik, Arabako lurraldeko hiru gunetan gutxienez gauzatuko den *komisariotza proiektu* baten hautaketa (Eskualdea Komisariotza) eta, bestetik, *ekoizpen artistikoko* hiru proiektuena (Eskualdea Ekoizpena), lurraldearen gune batzuetan eta besteetan aurkeztuko direnak.

Dokumentu hau Eskualdea Komisariotza deialdiari dagokio.

ESKUALDEA KOMISARIOTZA

Artista garaikideen lana ezohiko testuinguruetan garatu eta ezagutarazteko komisariotza proiektu bat aukeratzea du helburu, eta hura Arabako Lurralde Historikoko gizartearen, kulturaren eta ingurumenaren errealitatearekin lotzea.

Programa honek sorkuntza garaikidea babesteko eta zabaltzeko esparru bat izan nahi du, baina garrantzi berezia eman nahi die beste alderdi batzuei ere, esate baterako herritarren garapenari, sormenari eta hurbileko kulturari, eta beraz, bertako biztanleekiko lana ezin utzizko proiektuaren zeharkako ardatz bat da.

Aintzat hartuko dira beren lantaldean Arabako Lurralde Historikoan nahiz Trebiñu konderrian egoitza duten artista eta artearen profesionalen (edota beren ibilbide profesionalean, epaileen ustez, arabar testuinguruarekin lotura egiaztatua izan dutenen) presentzia duten proiektuak.

Balioak

Artearen eta kulturaren eraldatzeko ahalmena balioestea dago ekimen honen oinarrian. Etengabeko zeharkako begirada batekin, eragileak dinamizatu nahi dira Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH)-en planteatutako erronka globalei Arabatik erantzuteko, eta sormenarekin, lurralde (des)orekarekin, despopulazioarekin, berrikuntzarekin, oroimenarekin, kultur eskaria sustatzearekin, parte hartzeko bermearekin, genero-berdintasunarekin, ingurumenaren erronkekin eta kultur nortasun dinamiko, ireki eta askotariko baten defentsarekin lotutako lurralde-erronkei aurre egiteko ekimenak sustatu nahi dira.

2.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da Arabako Lurralde Historikoko hiru tokitarako —edo proiektuan proposatu eta epaileek onetsietarako— (ikus iradokitako tokien zerrenda I eranskinean) esku-hartze artistiko baten komisariotza proiektu bat hautatzea.

Ekimen honekin, sorkuntza eta gogoeta garaikidea eta arabar gizartea elkarretaratu eta bategin nahi dira ahal den neurrian, eta testuinguru batzuen eta besteen arteko harremanen inguruan gogoeta eginaraziko duten proposamenak sustatu.

3.- HAUTAGAIAK

Arabako Lurralde Historikoan garatzeko komisariotza-proiektu bat aurkeztu nahi duen edozein pertsona fisikok (heldua) zein juridikok dauka deialdira aurkezteko aukera, zeinahi ere dela bere herritartasuna eta bizilekua, bakarka nahiz taldean.

4.- PROIEKTUAREN ESKAKIZUNAK

Aurkeztutako proiektu guztiek ondoko eskakizunak bete beharko dituzte:

- Esku-hartze artistikoaren proposamena arte garaikidearekin lotuta egongo da.
- Hiru artistak parte hartuko dute gutxienez, eta beren proposamena bakarka ala taldean egin ahal izango dute.
- Gutxienez, aipaturikoetako hiru gunetan egitea aurreikusiko da, oinarri hauen I eranskinean zehazten denaren arabera.
- Topaketa- eta bitartekaritza-ekintza osagarriak egitea aurreikusiko du.
- Esku hartuko den espazioen eta inguruaren segurtasuna errespetatuko du ingurumenari, arkitekturari eta ondareari dagokienez.
- Antolatzaileekin hitzartutako epeak eta egutegia beteko dira.
- Aurrekontuaren planteamendua dokumentu honetan zehaztutako zenbatekoetara doituko da.

Deialdi honetan taldean esku-hartzea aurreikusten denez (komisarioak eta artistak) proiektuak, oro har, aintzat hartuko ditu berdintasun printzipio eta politikak eta arteen esparruan emakumeak ikusgai egitekoak. Gainera, Arabako Lurralde Historikoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da une oro, komunikazioa eta zabalkundea bi hizkuntzetan eginez.

5.- ZENBATEKO EKONOMIKOA

Deialdi hau gauzatzeko erabili ahal izango den gehieneko diru-kopurua HOGEITA HAMAR MILA EURO (30.000 €) da, BEZ barne, proposamenaren aurkezpenari erantsitako gastuen aurrekontu batean modu argi eta koherentean banatu beharko dena.

Zenbateko horretan sartuta daude ekoizpen-gastu guztiak, besteak beste, garraioa, materialak, muntaketa, ostatua eta mantenua, behar izanez gero, eta baita artisten eta komisarioaren ordainsaria eta argitalpen baten edukiaren kostua ere.

Artiumek, komisarioak eta artistek kontratu bat izenpetuko dute, bestek beste zuzkidura ekonomikoaren gastuaren mekanismoak finkatuko dituena.

Ekoizpenaren kudeaketa errazteko, Artiumek EHUNEKO HIRUROGEITA HAMABOST (%75) aurreratuko dio gehienez ere komisarioari aurrekontuaren zenbatekotik.

6.- HAUTAGAITZAK AURKEZTEA

Arabako Lurralde Historikoan esku-hartze artistiko bat egiteko komisariotza proiektu bat hautatzeko lehiaketaren deialdiaren iragarpena Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da (ALHAO).

Proposamena aurkezteko epea 2019ko uztailaren 5eko 14:00etan amaitzen da.

7.- ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

Hautagaiak ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Proposamenean parte hartzen duten parte-hartzaile guztien nortasuna eta harremanetarako datuak.
- Proposamenean parte hartzen duten guztien NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- Parte hartzen duten komisarioaren eta artisten ibilbide profesionala.
- Proiektuaren txosten osoa, helburuak, proposamenaren garapen kontzeptuala, jarduketa-plana (garapen-faseak eta esku-hartze artistikoen xehetasunak) eta beharrezko giza-baliabideen eta baliabide teknikoek zerrenda zehaztuko dituen eta proiektua burutzea zergatik komeni den azaltzen duen idatzi pertsonala jasoko duena.
- Proposamenaren aurrekontu zehatza.
- Dokumentazio osoa euskarri digitalean (PDF formatuan, gehienez ere 5MBeko handieran) bidali beharko da bgodino@artium.org helbide elektronikora.

8.- BALIOESPEN IRIZPIDEAK

Deialdi hau esleitzeko balioespen irizpideak ondokoak izango dira:

- a. Kalitate artistikoa eta aurkeztutako proiektuaren komisariotza-ildoak, esku hartuko den tokietako testuinguru sozial, natural eta kulturalarekiko elkarrizketa eta izango den eragina kontuan izanda (%60).
- b. Proiektuan parte hartzen duten pertsonen curriculumak eta ibilbidea (%20)
- b. Oinarri hauen arabera, proposamenak teknikoki, denboraz eta aurrekontuz duen bideragarritasuna (%20).

9.- PROIEKTUAREN GARAPEN FASEAK

- **1. fasea.** Eskariak aurkeztea: Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratzen denetik 2019ko **uztailaren 5eko (ostirala)** 14:00ak arte.
- **2. fasea.** Deialdiaren ebazpena gutxi gorabehera: **2019ko uztailaren 12an, ostirala.**
- **3. fasea.** Proiektuaren garapena: kontratua izenpetzen denetik aurrera edozein unetan, gehienez ere 2019ko abenduaren 15era bitartean.
- **4. fasea.** Parte hartzen duten proiektuak **jendarean aurkezteko egun bat** irailean zehar.
- **5. fasea.** Desmuntatzea, gehienez ere abenduaren lehen hamabostaldian.
- **6. fasea.** Proiektuaren amaierako txosten bat aurkeztea eta gastuak faktura bidez justifikatzea, 2019ko abenduaren 15era arte.

Artiumen web orriaren eta gizarte-sareen bidez jakinaraziko da deialdiaren ebazpena, eta proiektua aurkezteko erabilitako helbide elektronikora erantzunez.

Behin proposamena hautatuz gero, proiektuaren ardura duen komisarioak finkatuko du antolatzaileekin hitzartuta haren garapenaren behin betiko egutegia.

Proiektua abian jarri aurretik, komisario irabazleak eta artista parte-hartzaileek kontratu bat izenpetu beharko dute Artiumekin, proiektua zein baldintzatan garatuko den finkatuko duena.

10.- BALIOESPEN BATZORDEA

Behar den denboraz ezagutaraziko da zeintzuk osatzen duten proposamena hautatzeko ardura duen epaimahaia. Euskal artearen eta kulturaren esparruko profesional sorta batek osatuko du, gizon-emakumeen arteko oreka gordez.

11.- EGILE ESKUBIDEAK

Proiektua burutzeko beharrezkoak diren egile eskubide guztiak Artiumi emango dizkiote komisarioak eta artistek, Jabetza Intelektualaren Legearen 14. artikuluan jasotako egileen eskubide moralak izan ezik.

12.- JURISDIKZIOA

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea esan nahi du.

Lehiaketa honetako baldintzaren baten edo guztien interpretazioan edo betetzean, bertan arautzen diren harremanetan eta hartzen den erabakian sor litekeen edozein desadostasun epaimahaiak erabakiko du, eta haren erabakia apelaezina izango da.

13.- KONFIDENTZIALTASUNA

Komisariotza-proiektuaren hautaketa prozesuan parte hartzen duten pertsona eta erakunde publiko guztiek hitzematzen dute parte-hartzaileen datu pertsonalen erabateko konfidentzialtasuna bermatuko dutela. Era berean, ziurtatzen da hautatzen ez diren pertsonen parte-hartzea Balioespen Batzordeak bakarrik ezagutuko duela eta hautatutako taldearen kideen izenak baizik ez direla ezagutaraziko.

14.- BESTE XEDAPEN BATZUK

- Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoak pertsona bat jarriko du proiektuaren koordinazio lanetarako.
- Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoak bere ohiko komunikazio-bideak (gizarte-sareak, komunikabideak, webgunea) jarriko ditu proiektuaren zerbitzura, haren berri zabaltzeko.
- Proiektuan parte hartzen duten pertsonak aditu-testuak eta testu artistikoak idatzi beharko dituzte ekimenaren komunikaziorako. Beharrezko material mota, kronograma eta aldean arteko lan-prozesuak koordinazioaren ardura eta komunikazioaren ardura duten pertsonekin adostuko dira, behin proiektua hautatu eta gero.
- Artiumek proiektu honen inguruan sortzen den material grafiko, ikus-entzunezko eta dokumental guztiaren kopia bat jasoko du artxiborako eta zabalkunderako.
- Artiumek beretzat gordetzen du Eskualdea programaren argitalpen bat edota artxiborako eta zabalkunderako ikus-entzunezko erregistro bat egiteko eskubidea.

15.- AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauek etengabe hobetuz joateko asmoa dugu, beraz, etorkizuneko edizioetan (halakorik balego) berrikusi egingo dira sor litezkeen errealitate eta baldintza berrietara egokitzeko.

I ERANSKINA

PARTE HARTZEKO ESPAZIOEN PROPOSAMENA

Komisariotza-proposamenak ondoren aipatzen diren kokaguneetako gutxienez hirutan esku-hartzeko proiektu baten garapena jaso behar du.

Kokagune zehatzak:

- ZUHATZU KUARTANGOKO BAINUETXE ZAHARRA
- ARTZINIEGAKO ETNOGRAFIA MUSEOA

Kokagune orokorrak:

- Garaioko parkea, GARAIOKO PROBINTZIA PARKEKO INTERPRETAZIO ZENTROAREN EREMUAREN ingurua.
- IZKIKO PARKE NATURALAREN INGURUA.
- ARABAKO ERRIOXAKO TRIKUHARRIEN IBILBIDEA
- EKIALDEKO ARABAR LAUTADAKO ERROMANIKOAREN IBILBIDEA
- AÑANAKO GATZ HARANA

Deialdia ebatzi ondoren, talde irabazleak inguru naturala zaintzeko eta mantentzeko ardura duten Foru Aldundiko eta Udaleko teknikariek batera balioetsi eta, behar izanez gero, egokitu beharko ditu proiektuaren zehaztapenak.